

ALEGIAKO

ORRIE



2022KO UZTAILA • ARGITARATZAILEA: ALEGIAKO UDALA • DISEINUA ETA INPRIMAKETA: GARAIKO



«Erabilera anitzagoa helburu»

3

HERRIKO
KIROLARIAK
MAILA
ONEAN

4/5

UZTAILAREN
14TIK 17RA
OSPATUKO
DIRA FESTAK

6

TOKIKO
ENERGIA
KOMUNITATEA
HELBURU

7

BESTE IKASTURTE
BAT BETE DU
MEMORIA
TAILERRAK
TXINTXARRIAK
MARTXAN IZAN
DIRA BERRIZ
ERE

8

IMERSOKO
OPORRALDIEN
ESKAITZA
ZUTABEAK
APAINTZEKO
LOREAK

Erabilera anitzagoa helburu

Eskolako jolaslekua azalberritzeko lanetan murgilduta dabil Alegiako hezkuntza komunitatea, patioari zuku gehiago ateratzeko asmoz



Azken asteetan eskolaren aurretik pasa diren herritarrek somatuko zuten bertako jolaslekuak hainbat aldaketa izan dituela. Iturri Zahar guraso elkarteak patio zaharra egungo beharretara egokitzeko premia ikusi zuen. Bertatik adierazi duten moduan “patioaren aurrekaldea ia elementurik gabeko espazio ireki bat zen eta zeudenek, umeak jarduera bakarrera mugatzen zituzten gehienetan. Patioaren eraldaketarekin aniztasuna bultzatu nahi izan dugu, aukerak eman haurrei beraien mugimendua aberasteko, jolas ezberdinak egin ahal izateko, elkarren arteko harremanak sustatzeko eta genero arrakalak ekiditeko”.

Alegiako Herri Eskolako eta Aralar Institutuko ikasleek, irakasleek eta gurasoek eta Udalak osatzen duten Alegiako hezkuntza komunitateko kide guztiak bildu dituen parte hartze

prozesu bat jarri zuten martxan. “Denon artean nolako patioa nahi genuen zehazten joan ginen eta prozesutik eratorritako emaitzak herrira zabaldu ziren, edozein herritarrek ere ekarpenak egin zitzaizkion honen inguruan”.

Behin proiektua definituta, hurrengo pausua eraldaketarekin martxan jartzea izan da. “Lanak aurrera eramateko auzolana bultzatu dugu Iturri Zahar guraso elkartetik eta hilabete hauetan ateak lekuz aldatu dira aurrekaldeko patioan eremu ezberdinak sortzeko: kirolerako espazioaz gain, jolasa eta mugimendua bultzatuko dituzten beste eremu batzuk ere lantzen hasiak gara: frontoi bat margotu da, egurrezko elementuak jarri dira, toka, lore eta landareak... eta honek, aipatu espazioak sortzeaz gain, gune goxo eta atseginago bat sortzea ekarriko du”. Oraindik asko dagoela egiteko gaineratu dute eta datozen hilabeteetan egurrezko mahaiak



eta ping-pongerako mahai bat jarriko dira eta auzolanean jarraituko da falta diren espazioak egokituz.

Hori guztia definitzen joateko, herri eskolako guraso eta irakasleek osaturiko batzorde bat lanean ari da eta bertako ateak nahi duenarentzat irekita daudela gogorarazi dute. Parte hartze prozesua eta eraldaketa gauzatu ahal izateko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak jaso dituzte.

Herri mailan Udalak ere egin du bere ekarpena eta baita Alegiako Herri Eskolak, Aralar Institutuak eta hauetako guraso elkarteek ere. “Gabonetan errifak ere saldu genituen. Patioko espazioa aldatzeaz gain, eraldaketa honen beste helburuetako bat haurrei beste balore batzuk ikustaraztea izan da: herritar bezala herria hobetzeko egin dezakegun ekarpena auzolanaren bitartez, herriko eragileen arteko lankidetzaz, haurren aniztasuna kontuan izatea, genero ikuspegia eta parte hartzearen bitartez denon ahotsa kontuan izatea”.

Herriko kirolariak maila onean

Saskibaloiko eta futboleko hainbat taldek denboraldi aparta osatu dute eta Paula Del Pozo ere punta-puntan dabil Europa mailan

Alegiako kirol taldeek maila ona eman dute orokorrean 2021-2022 denboraldian zehar. Saskibaloian, Elorri Aldapa taldeak gertu izan zuen Gipuzkoako gizonezkoen nagusien bigarren mailarako igoera baina azkenean ez zuten lortu. Denboraldi bikaina osatu dute. Lehen fasean bigarren postuan sailkatu ziren eta igoera fasean ere goiko postuetatik hurbil ibili ziren. Nor igo erabakitzeko kanporaketetan, zuzenean igotzea ahalbidetuko zien finalaren atarian geratu ziren eta hirugarren eta laugarren postua lortzeko partidaren ere ezin izan zuten garaipena lortu, mailaz igo ahal izateko. Dena den, taldeko kideak oso pozik agertu dira egindakoarekin eta zaleei eskerrak eman nahi izan dizkiete urte osoan jasotako babesagatik.

Intxurreko futbolarietarako dagokienean, gizonezkoen kadete mailako taldeak ohorezko mailarako igoera lortu du. Hauek ere txapela kentzeko moduko denboraldia egin dute. Lehen ligaxkan 12 partida jokatu eta 11 irabaztea lortu zuten, bakarra galduz. Igoera fasean berriz, 18 jardunaldi izan dituzte eta ez dute partidarik galdu. Hamazazpi garaipen eta berdinketa bat kateatu dituzte. Denboraldia borobiltzeko lehen mailako txapeladuna erabakiko zuen kanporaketetan finalera iristea lortu zuten baina azkeneko Oriokoren aurka finala galdu egin zuten.

Paula Del Pozo triatleta lortzen ari den emaitzak ere aipagarriak dira. 2021eko abuztuan Europako Kopako proba irabazi zuen Rigan junior mailan eta aurten elite eta 23 urtez azpiko

mailetan ari da lehiatzen. Europako kopako bost probetan hartu du parte oraingoz eta emaitza oso onak ari da lortzen. Martxoan Lievinen (Frantzia) jokaturiko Europako kopako proban bederatzigarren postua lortu zuen elite mailan eta maiatzaren 27an zortzigarren sailkatu zen 23 urtez azpiko elite mailan eta hamazazpigarren elite mailan Poloniako Olsztyn hirian jokaturiko proban. Ekainaren 11n hamaikagarren izan zen Coimbrako (Portugal) proban elite mailan. Taldeko Espainiako erreginaren kopa errelebo mistoan eta Espainiako txapelketa irabazi ditu.



Sexu erasoen aurkako protokoloa

Eztanda talde feministaren eta Udalaren elkarlanari esker, sexu erasoen aurkako protokolo bat martxan izango da festetan. Asteazken gauetik hasi eta larunbat gauera bitartean etxera taldean lagunduta joateko hitzorduak egongo dira. Asteazkenean 02:00etan eta 04:00etan izango dira hitzordu horiek. Ostegunean 02:00etan. Os-

tiralean eta larunbatean 01:00ean, 03:00etan eta 05:00etan.

Ordutegi horretatik kanpo norbaitek laguntza beharrezkoa balu, 606 797 135 telefonora deitu dezake eta ordubeteko epean gehienez, arduradun baten laguntza izango dute etxera joateko.



osteguna 14

- 17:00** Haurren FUTBITOko "Santos Torneo"ren finala frontoian.
- 18:30** BONBERENEA TXARANGA kalez kale ibiliko da.
- 19:00** TXUPINAZOA Txintxarri Abesbatzaren eskutik. Jarraian, Txintxarriaren jaitsiera jaien hasiera iragartzeko.
- Ondoren HOLI FESTA.
- 21:00** ZAHAGIARDOA plazan.
- 22:00** SUTARRI dantza taldearen emanaldia plazan.
- Ondoren, DANTZALDIA Joxe Mendizabalen eskutik.

ostirala 15

- 09:00** Giroarte dultzaina taldeak alaituriko DIANA.
- 09:00** Jubilatuek antolatutako MENDI IBILALDIA.
- 11:00** Hirugarren adineko soinketako ikasleen emanaldia plazan.
- Ondoren, jubilatuentzat HAMAIKETAKOA.
- 11:00** HAUR PARKEA eskolako patioan.
- 11:30** Nerabeentzako, "KONKIS TXIKI" futbol zelaian.
- 14:00** Nerabeen "0.0 zahagiardoa" plazan.
- 16:00** HAUR PARKEA eskolako patioan.
- 18:00** MERIENDA Larraitz auzoko plazan.
- Ondoren, haurrentzako PLAY-BACK saioa.
- Ondoren, Alegiako erraldoien KALEJIRA Larraitz auzotik.
- 19:00** Herritarren arteko TOKA TXAPELKETA plazan 12 eta 15 urte bitartekoentzat eta ondoren 16 urtetik gorakoentzat.
- 21:00** ZAHAGIARDOA zubian.
- 22:00** PILOTA JAIALDIA Elorri pilotalekuan.
- Alegiako X. Pilota txapelketako finalak. Kadete eta Nagusien mailak.
- 00:00** NIKOTINA eta SKABIDEAN taldeen kontzertuak plazan.



Bulebarrean asteazkenetik

Ohiturari jarraituz, gaztetxeak antolatuturiko jaiak ere izango dira. Gaztetxunak ematen duen indarragatik edo, egun bat lehenago emango zaio hasiera festari bulebarrean. Hilaren 13an kuadrillen arteko herri kirolak egingo dira 17:00etan. 19:00etan sagardo dastaketa izango da eta gauean erromeria. Kantzontzilo eta kuleru karrera, karaokea eta gaupaseroen argazkia izango dira lehen parranda gaueko beste osagaiak.

Ostegunean musika izango da protagonista. Arratsaldean Biren taldeak emandaldia akustikoa eskainiko du eta gauean Urkabe eta Malakias Ta Maixa izango dira.

Ostiralean egun nagusia izango dute gazteek. Eguerditik hasita bazkaria egingo da bulebarrean eta arratsaldean kuadrillen arteko jolasak izango dira. Gauean Skasti, Liluraren Kontra eta DJ Kraken Eko ariko dira. Goizaldean txarangak jarriko du giroa.

Larunbat gauean Bass Again, DJ Brujo Txapahotsa Sound Sistem eta DJ Naza ariko dira bulebarreko oholtzan eta igandean aurtengo berrikuntzetako bat izango da. 17:00etan A.Txa. Txa (Alegiko Txapela Txapelketa) jokatuko da. Iluntzean Alaitz Artolaren kontzertua izango da eta herriko bertsolarien saioarekin amaituko dira jaiak.

Larunbata 16

09:00 Giroarte dultzaina taldeak alaituriko DIANA.
11:00 Alegiako erraldioen KALEJIRA elizatik.
12:00 SAGARDO DASTAKETA txorixo eta sardina erreekin.
SAGARDOTEGIAK: Eguzkitza, Sarasola, Isastegi eta Aulia.
16:00 3X3 SASKIBALOI TXAPELKETA
Larraitz auzoko plazan. Nagusien maila.
18:00 Billabonako erraldoi eta buruhandiek, Loatzo musika eskolako dultzaina ikasleekin eta Giroarte dultzaina taldearekin KALEJIRA.
19:00 BERTSOLARIAK plazan.
Maialen Lujanbio, Oihana Iguaran, Amets Arzallus eta Unai Mendizabal.
Gai-jartzailea: Amaia Agirre.
21:30 ZAHAGIARDOA LARRAITZ AUZOAN.
00:00 Dj Oizeder.



Igandea 17

09:30 KALEJIRA BEREZIA herriko txistulariekin.
12:15 DEMODE QUARTET taldearen emanaldia plazan.



17:30 APAR FESTA eskolako patioan.
18:30 HERRI KIROLAK eskolako patioan.

HARRIJASOTZAILEEN XV. TXINTXARRI SARIA
Binakako torneoa:

- Aimar Irigoien – Paulo Azpiazu
- Jokin Eizmendi – Hodei Iruretagoiena *Izeta IV*
- Jon Unanue *Goenatxo III* – Mikel Lopetegi *Urta*

Tartean, Udane Ostolaza eta Aroa Sanchezen erakustaldia.

19:30 GABENARA taldearekin erromeria plazan.
21:00 ZAHAGIARDOA plazan.
23:00 GABENARA taldearekin erromeria plazan.
00:00 TXINTXARRIAREN ERREKETA eta jaien agurra.



Tokiko energia komunitatea helburu

Argindar faktura murriztea eta herrian bertan ekoiztutako energia berriztagarria kontsumitzeko aukera eskaini nahi da

Eskolako estalkian 47,6 KWko potentzia izango duen instalazio fotovoltaikoa eraikiko da 2023an zehar Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Alegiako Udalaren ekimenez. Instalazio honek 51.000 Kwh inguruko sorkuntza gaitasuna izango du, hau da, 25 etxebizitza inguruk bataz beste urtean kontsumitzen dutena hain zuzen.

Ekimen honek berritasun nagusi bat dakar: sortuko den energia hori guztia, proiektuan parte hartu nahi duten herritarren artean banatuko da. Hau da, herritar bakoitzak sortuko den energiaren zati bat hartuko du eta honek bere argindar fakturan

murrizketa bat izatea ekarriko du, autokontsumo eredua jarraituz.



Parte hartzeko interesa agertzen duten herritarrek Alegiako Tokiko Ener-

gia Komunitatea eratuko dute, irabazi asmorik gabeko elkarte moduan sortuko dena. Komunitateak berak gobernatuko du bere burua eta beharrezkoak dituen erabakiak hartuko ditu.

Proiektua berritzailea da eta esperientzia gutxi batzuk daude Gipuzkoa mailan (Orexa, Zumarraga, etab.). Berritasun honek informazio, hausnarketa eta parte hartze prozesu sakon baten beharra egongo dela esan nahi du. Prozesua 2022 amaieran eta 2023 osoan zehar hedatuko da eta beraz, datozen hilabeteetan proiektuaren inguruko informazioa zabalduko du Udalak ohiko bideen bitartez.

Beste ikasturte bat bete du memoria tailerrak

Ariketa ezberdinak eginez adinekoen ahalmen kognitiboa garatzea helburu duen ikastaroak parte hartze polita izan du aurtenera ere



Adineko pertsoneri zuzenduta dagoen memoria tailerrak beste ikasturte bat osatu du. Pertsona horien gaitasun kognitiboa mantentzea helburu duen egitasmoa da Udaleko gizarte zerbitzuen eta Lahar Elkargoaren elkarlanari esker eskaintzen dena eta aurtenera ere parte hartze txukunarekin osatu dute urtea.

Ariketa ezberdinak eginarazten zaizkie parte hartzaileei. Memoria lantzeko baliabide ezberdinak erabiltzen dituzte saioen dinamizatzaileek eta memoria eta gaitasun kognitiboak lantzeaz gain, elkarren arteko harremanak sustatzen dira eta askoren kasuan, jendearen konpainian egoteko modua ere izaten da, parte hartzaileetako hainbat bakarrik bizi direlako.

Udalak eskertu egin nahi du adinekoek saio horietan parte hartzeko egiten duten ahalegina. Urtez urte taldetxo bat mantentzen da eta saioetara pozik joaten dira, egiten dutenarekin onura sentitzen dutelako. Udalaren asmoa udazkenean tailerraren denboraldi berri bati hasiera ematea da eta uda ostean emango da bertan parte hartzeko egin beharrekoaren inguruko informazioa.

Txintxarriak Martxan izan dira berriz ere

Pandemiaren eraginez aurreko ekitaldietakoa baino parte hartze txikiagoa izan du 2021-2022 ikasturteak baina balorazio positiboa egin da



Ekainaren 16an amaitu zen Txintxarriak Martxan 2021-2022 denboraldia. Aurreko bi ikasturteetan ekimena bertan behera utzi behar izan ostean, iazko urrian gogotsu ekin zitzaion adinekoak ariketa fisikoa egitera eta elkarren arteko harremanak sustatzera bultzatzea helburu dituen egitasmoari. Beharrezkoak ziren osasun neurri guztiak hartuta, parte hartzaileen segurtasuna bermatzea izan da une oro antolakuntzaren jomuga nagusia.

Ikasturteak aurrera egin ahala osasun baldintzek hobera egin dute baina hala ere adinekoei kostatzen zaien irteeretan parte hartzea. Aurreko ekitaldietan baino parte hartze txikiagoa izan da baina hala ere, parte hartzaileak gustura ibili dira ostegunero egin dituzten irteeretan.

Ekainaren 16ko azken irteeran Txintxarriak Martxan irudia duten poltsa batzuk eman zitzaizkien aurtengo parte hartzaileei. Udalaren eta ekimenaren antolatzaileen intentzioa, udazkenean ekimena pandemia aurreko normaltasun osoz egin ahal izatea da, orduko parte hartze kopuruetara iritsiz. Bide batez, eskerrak eman nahi zaizkie parte hartzaileei eta antolakuntza lanetan aritu direnei.

8

IMSERSOko oporraldien eskaintza

Interesatuak udaletxeko gizarte zerbitzuetan aurkeztu beharko dituzte eskaerak



Alegiako Udaleko gizarte zerbitzuek zabaldu dute 2022ko IMSERSOKO oporraldi programan izena emateko epea. Ekainaren 27an ireki zen epea eta uztailaren 19an itxiko da. Programa horretan parte hartu nahi dutenek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- Gizarte Segurantzako Sistemaren jubilazio pentsioduna izatea.
- 55 urte edo gehiago izatea eta alarguntasun pentsioduna izatea.
- Beste pentsio moten edo/eta langabeziko prestazioen onuradun izatea, 60 urte beteta edo/eta gorakoa izanik.
- 65 urte edo gehiago izan eta Gizarte Segurantzako sistemaren titular edo onuradun izatea.

Interesatuak Udaleko gizarte zerbitzuen bulegoan aurkeztu beharko dituzte eskaerak.

Informazio gehiagorako 943 65 47 68 telefono zenbakira deitu daiteke.



Zutabeak apaintzeko loreak

Txintzarri plazaren alboan kuboak zintzilikatzeko dauden zutabeen gainean loreak jarri ditu herritar batek

Askotan oharkabean pasatzen diren keinurik txikienek ere herria janzten laguntzen dute. Herritar batzuk ohartuko ziren seguruenara baina beste batzuk albiste honen bidez izango dute honen berri lehen aldiz.

Kontua zera da. Txintzarri plazaren alboan hondakinen kuboak zintzilikatzeko dauden zutabeen gainean loreak ipini dituela herritarren batek. Bost zutabe daude eremu horretan eta bosten gainean loreontzi bana ikusi daiteke, kolore ezberdinetako loreekin.

Udalak eskerrak eman nahi dizkio loreak jarri dituen herritarri, ekintza horrekin berez hondakinak uzteko den puntu bati kolorea emateagatik.